

Wakefield



Wakefield

Egilea: Nathaniel Hawthorne
 Itzultzailea: Koro Navarro
 Argitaratze urtea: 2007
 Argitaletxea: Alberdania&Elkar

MIKEL GARMENDIA

Hamabi ipuinez osatutako sorta bateko lehena dugu Wakefield izenekoak, Koro Navarrok euskaraturik Literatura Unibertsala bilduman berriki argitaratua. Wakefield ipuinak eman du eta ematen du, berak bakarrik, nahikoa zer pentsatu eta zer ikertu. Borges bera izan zen, esaterako, ipuin honen balio eta garrantzia hasieratik azpimarratu zituena, edizio honen itzultzaileak egindako hitzaurre interesgarrian azaltzen digunez.

Wakefield 1837an argitaratu zen eta hori ez da, besterik gabe, datu huts bat, deigarri egiten baita Wakefield ipuinaren amaieran egindako planteamenduak nola "aurreratzen" digun gerora Poeren, Melvilleren, Kafkaren edo Borgesaren beraren idazlanetan aurkituko ditugun gai eta lekuak. Hona: "Gure misteriozko mundu honen itxurazko nahasmenean, hain ederki daude gizabanakoak sistema bati egokituak, eta sistemak elkarrekin eta osotasun baten baitan, non baldin gizon bat une bakar batez alde batera mugitzen bada, bere lekua betiko galtzeko arrisku izugarrian gertatzen baita. Wakefield bezala, bihur daiteke, nolabait esateagatik, Unibertsoko Paria".

Wakefield ipuina interpretazio bat dugu, azken finean, Hawthornek ustezko berri baten irakurketatik abiatuta egiten duena: senar batek hogeitau urte emango ditu etxetik kanpo emazteari astebeterako zihoala esan ondoren, eta hogeitau urteren buruan etxera itzuliko da, deus gertatu ez balitz bezala. Hawthorren ipuin honen –eta gainerakoen– alderdirik interesgarrienetakotzat daukat pertsonaiei egiten dien azterketa psikologikoa. Horretan ere garaiei aurre hartzen diela ematen du. Argitaratze-datarengatik ez balitz, erraz esango genuke idazleak asko duela joera psikoanalistetatik edo, bestela esanda, Freud edo are Lacan-en planteamenduetatik. Bi hitzetan esatearren, Hawthornek gerora psikoanaliaren kezka-iturri nagusienetako bat izango zena jartzen digu begien bistan: zenbateraino gara geure buruaren eta geure ekintzen jabe? Zer indarrek eramaten gaitu halako edo halako erabaki hartzera? Horra inkonszientziaren mundua.

Ipuin honek zer esan eta zer pentsatu handia ematen jarraitu izan du eta, hala, hortxe daukagu, esate baterako, Wakefielden emaztearen balizko ikuspuntua jorratu duen Eduardo Bertiren eleberria: *La mujer de Wakefield* (ed. Tusquets).

Aipatutako ezaugarriez gain, badira beste batzuk hamabi ipuinetan sumatuko ditugunak: ipuin guztietan jorratuko zaizkigu gai sakonak, transzendentalak, filosofikoak... baina horiek tratatzeko tresna fantasia izango da. Baita nolabait kritikagarri gerta litezkeen amaieretan ere –halako ikasbide gisa emanak baitaude–, zeren amaierak ere fantasiak eta are absurdutik hurbilekoak ere izango baititugu. Iradoki egiten dute, beraz, Hawthorren ipuinek; fantasiaren bitartez iradokitzen digu nolakoak garen barrutik gizakiak: moral bikoitza, geure baitan daramagun gaizkile-izaera... Askotan jauzi handiak egingo dizkigu denboran fantasia horren bila, antzinako garaietara ere joango zaigu tarteka eta, kontaktari dagokionez, ikuspegi bat baino gehiago erabiliko ditu narratzaileak. Alde horietatik garai hartarako ere oso teknika aurreratuak direla esango genuke. Idazkerari dagokionez, berriz, trinkoa bezain zehatza da haren idazkera Koro Navarrok eman digun bertsioan. Bainaren bat jartzekotan nik, aukeran gehiagotan erabiliko nuke aditza aurreraturik: "Damek (...), entzungo zutela nire irakurketa adierazi zuten / Damek (...), adierazi zuten entzungo zutela nire irakurketa".

Patxadaz hartu eta gozatzeko liburua dugu, ipuin bakoitzak bere autonomia erabatekoa du eta alde horretatik irakurketa independenteak egiteko abantaila ematen digu sorta honek. Badute, halere, estiloari eta sakoneko gaiari –azterketa psikologikoari eta gizakiari buruzko kezkarri– dagokionez lotura estu bat.